

Hizkuntza eta boterea

Paulo Iztueta

Hizkuntza gizarte-fenomeno bat da eta, beste edozein gizarte-fenomenoren antzera, bera kokaturik aurkitzen den gizartearen kontraesanak jasaten eta eragiten ditu. Hizkuntzak, bada, gizartearen gatazka-egoera isladatzen du. Hizkuntzak oro, berez, balio berekoak dira eta guztiek dituzte eskubide berberak. Baina gatazka-egoeran dagoen herri batean, kasurako gurean, hizkuntz eskubide indibidualak eta kolektiboak gurutzatzen direnean, lehenagokoak dira hizkuntz komunitateari dagozkion azken hauek. Hizkuntzak botere-harremanak isladatzen ditu, nazio menperatu baten hizkuntz normalkuntzak, azken batean, Estatuarekin topo egiten du. Hizkuntzaren bizia, gehienbat, botereak erabakitzen du. Hauxe da euskararen kasua.

Language is a social phenomenon, similar to any other social phenomenon, which creates and suffers the contradictions of the society it belongs to. So, language reflects the conflicts of society. All languages, per se, have the same value and the same rights. But in a country, like ours where there is a great deal of conflict and where collective and individual rights are at cross purposes, the collective rights that correspond to a linguistic community have the priority. Due to the fact that language reflects the power relations, the normalisation process of a language in a dominated country will eventually face the State. The power generally decides the lifespan of a language. And this is the case of the Basque language.

*«Zerk egin du
hizkuntza bat bestea
baino indartsuagoa,
nolabait esateko
kultura unibertsalaz
hornituagoa, izatea?
Arrazoi
estralinguistikoek,
zalantzarik gabe»*

*«Nazio-gatazkak,
klase-gatazkak, sexu-
gatazkak, etab,
dauden bezalaxe,
hizkuntz-gatazkak
daude, eta egoera
hau gizarte-
bilakabidean
egiturazkoa da, ez
azalekoa, behin
behinekoa, edo
horrelako zerbait.
Noski, esan beharrik
ez dago, borrokan
daudenak ez direla
hizkuntzak, hizkuntz
komunitateak baizik»*

Joera indartsua dago hizkuntza apolitizatzekeoa. Asozialtzekeoa agian zuzenago, Durkheim-ek esango zukeen bezala. Bada gurean soziolinguista ospetsurik ere hizkuntz botereaz mintzatu denik botere politikoa espreski arbuatuz. Beste toki batetik, administrazio-ordezkarien bidetik bereziki, -eta ez helburu politikorik gabe- salatzen da euskara sobera politizatu dagoela eta, hain zuzen, horrexegatik ez omen dela gertatzen egun oraintsu arte indarrean egon den euskaldunen arteko adostasuna.

Gauden mailan egonda, oraindik bi arazo dauzkagu aski garbitu gabe:

- Euskal Herri historikoak ba ote du euskaldun izateko arrazoirik eta, ondorioz, berori aldarrikatu eta gauzatzeko eskubiderik? Galdera honek badu garrantzirik, zeren maila administratiboan euskararen subjektu dena ez baita euskal komunitatea bera, bertako hiritar indibiduala baizik. Helburuen arrazoizkotasuna da hemen galdera, ohiki funtzionalismoak, Marx Weber-ek berak eta honen ondoko tradizioak barne, baztertzen duena.

- Emanik, batetik, bidezko eta arrazoizko dela Euskal Herri osoan euskararen berreskuratzea planteatzea eta, bestetik, horretarako borondate politikoa badela, zeintzu bidek ziurtatuko lukete ondoenik helburu hori? Helburuetara heltzeko bitartekoen arrazoizkotasunaz dihardugu hemen, aurrean, praxian, Estatu-Nazioen arrazoi ezarriak ditugula oztupo nagusi.

Bi galdera nagusi horien barruan ulertzen dut nik hizkuntz normalkuntzari buruzkoa. Gaurko urak nondik doazen jakiteko, ordea, arazo horren lehen zatia planteatu zen garaitik abiatuko gara.

Euskaldun izateko arrazoiak.

1992ko azaroaren 27an, "Zergatik eta zertarako euskaldun?" galderari erantzuten ihardun genuen talde batek Euskadi irriatiak Arrasateko Monterron jauregian antolatutako mahai-inguruan. Galdera hori ez da oraingoa. Duela 25 urte, 1967ko otsailean, plazaratu zuen lehen aldiz Joxe Azurmendik *Zeruko Argia*-n, modu sinple batean, baina, aldi berean, sakonean. Galdera intentzio guztiz egina zen eta, egia esan, ustegabeen harrapatu gintuen. Azeria oilategian sartzen denean bezala, galdera hark zenbait euskaltzale asaldarazi egin zuen, erantzunak anonimatopean ezkututzeraino. Bazirudien, itxura batean bederen, euskarazko kultura indartsu gizarteratzen hasia zen garai hartan, lekuz kanpo zetorrela.

Izan ere, hain zen ebidentea! guzti honetan krisi existentzialaren larrimin-zantzua ikusi zuenik ere izan zen.

Dena dela, idazle-andana bat bildu zen, bederatzi inguru, zalapartaka, hari erantzutera. Erantzun guztiak kritikaren bahetik pasa eta gero, Joxe Azurmendik, azkenean, lan monografiko bat eskaini zuen *Jakin*-en (1967), bertan bere pentsamendua emanez, gaur egun ere, garai hartako lekuko gisa, pitxi ederra dena.

"Zergatik eta zertarako euskaldun?" galderaren inguruan emandako arrazoiaren artean, hauek aipatu ziren: Euskal Herriari jaio izana, herri txikiaren eginkizuna Europan, euskararen filosofia berezia, justizia eta guztiekiko eskubide-berdintasuna (Juan San Martin); pertsonagintza, jatorriak eta inguruak ezarritako berezitasunak eta balio-mundua, gizartearen zerbitzura egotea (Julen Kaltzada), etab.

Arazoa ez zen euskalduntasuna ukatu ala ez ukatu, baizik eta haren aldeko apostua nola justifikatu, arrazoitu. Erantzun gehienek, nahiz eta hizkuntzaren alderdi soziala azpimarratu, azken batean, maila indibidualan oinarritzen zuten euskalduntasuna, hizkuntzarekiko harremanak norberaren sentimenduan funtsatuz. Joxek alderantziz arrazoitu zuen, arrazobidean bi maila bereiziz:

Batetik, zioen, gizartea norbanakoaren aurretik igarotzen dela, hark hau mugatzen duela. Zentzu honetan, gu gara gizarteari zor gatzazkionak eta haren erreferentzian landu behar ditugu geure balioak. Gizabanakoak bere eskubide indibidualak ditu euskaldun izateko, maitatzeko duen bezalaxe; baina, aldi berean, gizartearekiko baditu euskaldun bezala jokatzeko betebeharrak ere. Nolabait esateko, eskubide-betebeharrak indibidualismoaren esparrutik aterata, gizarte-mailan ezarri zituen. Beraz, ikuspegi honen arabera, euskaldunaren zergatikoa eta zertarakoa mugatzen dutenak gizarte-premiak dira, bizi garen inguruko baldintzak, balio etikoak, etab. Hauen artean, herri-behar bat da biziki nagusia: Euskal Herriaren bizi nahia.

Bestetik, beste hau ere bazekarren: alegia, euskaldun izatea, maila pertsonalean, kontzientziak egiten duela. Sakonean, erabaki bat dago, herri euskalduna zerbitzatzeko erabakia, norberak, kasu desberdinen arabera, arrazoi desberdinengatik har dezakeena. Joxek, bereziki, arrazoi etikoa aipatzen du, justizia alegia, euskarazko kultura "larrutua, trapuzar bat eginda" ikustean, egoera horren aurka matxinatzeko, ez bakarrik eskubidea, beharkizuna ere badugula

«Hizkuntz komunitate orok ditu bere hizkuntz eskubideak. Baldin onartzen bada, hizkuntz arazoa, azken batean, gizarte-arazoa dela, alderdi objektibo eta subjektibo dituen, ondorioz dator herritarrek beren eskubideak eta betebeharrak dituztela beren hizkuntz komunitatearekiko, eta alderantziz»

«Hizkuntzarekiko eskubide indibidualak dauden bezalaxe kolektiboak ere badaude. Beraz, gurasoek seme-alabei beren hizkuntza irakasteko duten eskubideaz gain, edozein hizkuntz komunitatek du bere hizkuntza belaunaldiz-belaunaldi ondorengoei transmititzeko eskubidea»

*«Eskubideak
hizkuntz
komunitatean
oinarritzen dira
lehenik, eta ez
eskubide
pertsonalean soilki,
gure artean gertatzen
den bezala. Hementxe
datza, hain zuzen,
botere politikoak
hizkuntza baten
bilakabide
historikoan duen
garrantzi
erabakiorra»*

*«Baina inoiz iritsiko
ote gara Euskal Herri
osoa euskalduntzera
Estaturik gabe? Ni
nago hizkuntz
arazoa, funtsean,
Estatu arazoa dela
gaurko gizartean.
Biharkoan ez dakit.
Eta hau esatean, ez
nuke hizkuntz
normalkuntzarekikoa
sinplifikatu nahi»*

baieztatuz. Injustizia etxean bertan daukagunean, etxetik hasi behar da eginkizun horretan.

Orduko eztabaida hartan erabili ziren arrazonomenduek, uste dudanez, ez dute gaurkotasunik galdu. Agian beste modu batera formulatuko ditugu, baina arrazoiek baliozkoak izanez segitzen dute.

Ni orduan, egia esan, ez nintzen gauza sentitu galdera hari erantzuteko eta, zeharka-meharka ibili ondoren, ihesi egin nion. Uste dut, gaur hobeto lekutua nagoela erantzuten saiatzeko.

Nik hizkuntz arazoa planteatzeko orduan, beti ere Hizkuntz Soziologiaren ikuspuntutik begiratuta, jarraiko puntuok ikusten ditut oinarritzekoak, besteak beste: haren balioekiko erreferentzia eta gizarte-izaera.

Hizkuntza, funtsezko balioa

Hizkuntza guztiak, eta hauxe da abiapuntu eraikitzailea, gizadiaren ondasun edo balioak dira. Hain zuzen ere, kultura da, hizkuntza, abereen artean bereizten gaituena. Kultura, orotara hartuta, kultur mota askoren bilduma den bezala, gizakiaren bereizgarria den hizkuntza ere hizkuntza desberdinen bilduma bat besterik ez da. Zentzu honetan, hizkuntz erasoak gizarte-balioen pobretzea dakar.

Hizkuntza guztiak, berez, balio berekoak direnez gero, gizadiaren ondasunak, hizkuntza bakoitzari dagokiola normaltasun osoz garatua izatea. Honek esan nahi du hizkuntza batek ezin duela beste hizkuntza baten lekua hartu edo zapaldu gizadi-balioa larriki zauritu gabe. Demokraziak, beraz, sinesgarri izan dadin, printzipio hori ezagutu eta zaindu beharko luke.

Ez da nahikoa printzipioen aitortzen hutsean geratzea. Hizkuntz komunitate bati aplikatu ahal izateko, beharrezko da komunitate horrek hizkuntzarekiko kontzientzia edo leialtasuna erakustea bere praxiaren bidez. Bestela esanda: hizkuntza bat talde etniko baten elementu bereizgarri, nortasun-emaile, izan dadin, beharrezko da talde etniko horren kulturaren funtsezko balioetatik hartua izatea. Eta funtsezko balioa esatean, esan nahi da talde etniko batek horren bidez adierazten dituela bere nortasuna eta bere batasuna. Beraz, familia, historia, erlijioa, etab., komunitate baten batasun-eragile izan daitezkeen bezala da hizkuntza ere. Hizkuntzalariak esanik dakigu hizkuntza batek egiten duela herri bat beste ezerk baino gehiago, hizkuntza bat jakiteak eta jakin nahi izateak

markatu egiten duela zigilu bereziz gure herri-nortasuna. Eta honen arrazoi nagusia da, aspaldi samar bagenekiena baina berriro errepikatzea komeni dena, hiz-kuntza dugula gizarte bat besteetatik bereizten duten ezaugarrien artean larriena. Hizkuntzak gaitu, bada, barrura begira elkartzen eta kanpora begira bereizten.

Nolanahi ere, hizkuntza bati emandako balioa aldatu egiten da, ez bakarrik talde batetik bestera, baita talde baten barruan denboran eta espazioan zehar. Honek suposatzen du ikuspegi historikoa eduki beharra dagoela hizkuntzarekiko gizarte-jarrerak aztertzeko orduan.

Hizkuntza, gizarte-fenomenoa

Linguistikari gauza jakina da ez dagoela hizkuntza handi eta txikirik; daudenak dira hizkuntzen txikitasun -edo handitasun- egoerak.

Orduan galdera da: zerk egin du hizkuntza bat bestea baino indartsuagoa, nolabait esateko kultura unibertsalaz hornitua goa, izatea? Arrazoi estralinguistikoez, zalantzarik gabe. Puntu hau da, nire ustez, aztertu behar duguna, zeren arazoa ez baita teoriarik hizkuntza gizadi-ondasun bat dela aitortzearekin bakarrik erabakitzen -gaur egun mundu guztiak onartzen duen axioma-, baizik eta jakitea zergatik ez den errespetatua eta landua ondasun bati legokiokkeen neurrian. Eta hemen galdera esparru soilki linguistikotik soziologikora pasatzen da. Maila honetan, Soziolinguistika eta Hizkuntz Soziologia dira gehienbat hizkuntzaren alderdi soziala eta ko-lektiboa arakatzeko dihardutenak. Disziplina hauetan oinarrituta, jarraiko bi ondorio hauek bederen atera daitezke:

Lehenik, hizkuntzak gizartearen egoera gatazkatsuan daudela, egon. Honekin esan nahi da nazio-gatazkak, klase-gatazkak, sexu-gatazkak, etab. dauden bezalaxe, hizkuntz-gatazkak daudela, eta egoera hau gizarte-bilakabidean egiturazkoa dela, ez azalekoa, behin-behinekoa, edo horrelako zerbait. Noski, esan beharrik ez dago, borrokan daudenak ez direla hizkuntzak, hizkuntz komunitateak baizik. Dirauten hizkuntzak hil daitezke ordezkapen-prozesuaren ondorioz; baita sortu ere, pidginizatzearen kasuan bezala.

Hizkuntz-gatazkak gizarte baten egituratik bertatik jalgitzen direnak ditugu eta beroriek zuzen enuntziatu eta definitu ahal izateko, ezinbestekoa da egitura horretan inplikaturik dauden interrelazioak, kontraesanez eta antagonismoez zeharkatuak, ezagutzea. Honek esan nahi du, batetik, gatazkaren izaera dinamiko-politikoa itxuratzen duten gizarte-faktoreak

«Nazio-arazoa eta hizkuntzarena hain daude harreman hertsian, ezen bataren bilakabide historikoak bestea baldintzatzen baitu. Nolako proiektu nazionala daukagun, halakoa izango da bi aurpegiko arazo bakar horri emango diogun aterabidea»

«Estatu modernoetako hizkuntza nazionalak nola eraikiak izan diren ikusita, nik ez dut beste aterabide magikorik ikusten. Estatu baten babesean ere nekez, gauden egoeran egonda: haren babesik gabe, berriz, are nekezago»

«Euskara gehiago erabiltzen ez bada, gure errua dela esatea erraza bezain iruzurtia da, zeren arazoa ez baita euskara dakitenek ez dutela erabiltzen egiaztatzea; zailago dena da ulertaraztea zergatik ez duten egiten eta, adieraziz gero, azaltzea nolako bitartekoak erabili behar diren hizkuntz egoera desorekatu hau berdintzeko»

(ekonomikoak, sozialak, ideologikoak, politikoak, etab.), hots, elementu objektiboak, "ezkutuko" horiek, aztertu behar direla; bestetik, elementu subjektiboak ere bai, arazoaren alderdi psikoindibiduala ukitzen duten horiek, norberaren eguneroko bizitzan loratzen diren "ageriko" oposizio-gune horiek.

Bigarrenik, hizkuntz komunitate orok dituela bere hizkuntz eskubideak. Baldin onartzen bada, hizkuntz arazoa, azken batean, gizarte-arazoa dela, alderdi objektiboa eta subjektiboa dituen, ondorioz dator herritarrek beren eskubideak eta betebeharrak dituztela beren hizkuntz komunitatearekiko, eta alderantziz. Alde honetatik, 1967ko Joxe Azurmendiren planteamendu hura erabat zuzena da, bere osotasunean hartzeko modukoa. Honekin esan nahi dut, hizkuntzarekiko eskubide indibidualak dauden bezalaxe kolektiboak ere badaudela. Beraz, gurasoek seme-alabei beren hizkuntza erakusteko duten eskubideaz gain, edozein hizkuntz komunitatek du bere hizkuntza belaunadiz-belaunaldi ondorengoei transmititzeko eskubidea.

Guzti honek garrantzi handia du, zeren eskubide horiek hizkuntz komunitatean oinarritzen baitira, hor lehenik, eta ez eskubide pertsonalean soilki, gure artean gertatzen den bezala. Eta hementxe datza, hain zuzen, botere politikoak hizkuntza baten bilakabide historikoan duen garrantzi erabakiorra. Espainiako Estatuak, adibidez, bere lurraldea du eta, Konstituzioaren 3. artikuluan esaten denez, gaztelania ikasteko beharra dute hiritarrek; Euskal Herriko Autonomietan, aldiz, bertako hiritar guztiek dute euskara erabiltzeko eskubidea, baina ez nahitaez ikastekoa. Horretan dago aldea. Nahi duenak ikasiko du; nahi ez duena, aldiz, amnistiaturik geratzen da eskubide pertsonalen izenean. Zer mirakulu gertatzen da gaztelania betebeharezko izan dadin eta euskara ez? Sinpleki esanda, botere politikoak egiten du horrelakoa, ez arrazoi linguistikoak, ez etikoak, zeren esaten bada, entzuten den bezala, hizkuntzek ez dutela ezein eskubiderik, nolatan eta nondik datozkio beharrezkotasuna ezartzeko eskubideak gaztelaniari? Estatuak emanda Konstituzioaren bidez. Euskal Herrian aldarrikatu diren normalkuntz legeak haren esanera daudenez, ondorioz ateratzen da orain arteko hizkuntz gatazka gainditu ez, baizik eta, maila batean, areagotu egiten dela, gaztelaniak euskararen gainetik inposatuz segitzen duelako.

Euskal Estaturik gabe euskara bai?

Demagun, orain artekoak oinarritzat hartuta, baditugula euskaldunak izateko arrazoiak. Bego. Baina inoiz iritsiko ote

gara Euskal Herri osoa euskalduntzera Estaturik gabe? Norbaitek galde dezake paradisu bila ote nabilen edo. Agian. Hala balitz, ametsetan banenbil, honek suposatuko luke aspaldiko "Zergatik eta zertarako euskaldun?" galdera hura ez dela gaur egun batere ebidentea edota, okerrago litzatekeena, orduan soilki metodikoa zena idealisten ganbaran orain sismetatikoa izan daitekeela errealista eta posibilisten erresuman.

Ni nago hizkuntz arazoa, funtsean, Estatu-arazoa dela gaurko gizartean. Biharkoan ez dakit. Eta hau esatean, ez nuke hizkuntz normalkuntzarekikoa sinplifikatu nahi, ondotox baitakit mila alderdi katramilatu badituela eta haren gauzatztea hagitz zaila dena. Hari gogotik aitortzen diodan konplexutasun guztiaren barruan, nire ustez funtsezkoa den elementua, erabakiorrena, azpimarratzera mugatuko nauzu soilki.

Aurrekoan esan nuen hizkuntza, gizarte-fenomeno bat gehiago den aldetik, etengabeko egoera gatazkatsuan kausitzen dela. Gizarteko beste fenomenoan antzera. Hau entzunda, ez zaizkio inori prenak erortzen. Hizkuntz arazoa bereziki-bereziki Estatu-arazoa baieztatzea ordea, dirudienez, problematikoago gertatzen dela, zeren gatazka-iturri ez bakartzat, baina bai nagusi edo larriekotzat, Estatu dela zehazten baita.

Gehiegi esatea dela? Ez dut uste. Ez da bederen nik asmatua. Maila akademikoan axioma onartua duzu hizkuntzen ordezkapen-prozesuan Estatuaren inplikazioa oinarriko elementua dela. Nazio-arazoa eta hizkuntzarena hain daude harreman hertsian, ezen bataren bilakabide historikoak bestea baldintzatzen baitu. Nolako proiektu nazionala daukagun, halakoa izango da bi aurpegiko arazo bakar horri emango diogun aterabidea. Eta maila honetan, noski, etxekoen artean ikuspuntu politikoak dauzkagu kontrajarriak, kultur mailan ere aski ondo nabarmentzen direnak. Nik, neure aldetik, Euskal Estatu baten beharra sentitzen dut euskal gizartea bere osotasunean eraikitzeke eta, bereziki, gizarte euskalduna. Zenbat eta lehenago eskuratu, orduan eta hobeto. Gaur egun indarrean dauden Estatu modernoetako hizkuntza nazionalak nola eraikiak izan diren ikusita, nik ez dut beste aterabide magikorik ikusten. Estatu baten babesean ere nekez, gauden egoeran egonda; haren basesik gabe, berriz, are nekezago. Eta honekin ez dut mitifikatzen Estatu, indarrean dirauteno, horien errealitatea aintzakotzat hartzen baizik. Indartsuenak desagertuko direnean bakarrik izango zaigu haizu beste diskurtso-mota bat egitea. Bitartean, histo-

*«Hizkuntz
erreformaren
emaitzak arras
mugatuak izango
dira, borondaterik
handiena jarrita ere,
baldin aldi berean ez
badira aldatzen
gizarte-egiturak.
Hiztunen aldetik
erabilera normalizatu
ahal izateko, lehenik
edo aldi berean
norberarena baino
zabalago den
hizkuntz
komunitatearen
egoera anormala
normalizatu behar
baita»*

*«Ez da gogoratzen
Eireko Estatu sortu
zenean, 1921ean %7a
besterik ez zela
gaelikoduna. Beraz,
hizkuntz
normalkuntza aski
berandu zetorren,
beranduegi. Ez da
esaten, ezta ere,
Estatu nazionalak
biziki epel jokatu
zuela bere etni-
hizkuntza
indarberritu eta
komunikabide
normaltzat jartzeko»*

*«Irlandakoa eredu
desegokitzat hartu
eta, zergatik ez dira
aipatzen aurkako
adibideak, hala nola:
Israelgoa,
Finlandiakoa,
Txekoslovakiakoa
eta?»*

riak besterik esan dezan arte, lot gakizkion seriotan Sabino Aranaren nazio-aldarrikapena goi-boterez hornitzeari.

Topikoak

Horiek horrela, topiko batzu uxatuko ditut, nire ustez, hizkuntz eskubideak errebindikatzeko baino gehiago etsipenerako dei bat direnak:

Bat: mugak muga, badaukagula zer eginik aski lege autonomikoaren barruan eta, zentzu honetan, ez daukagula berehalakoan agorturik; areago, guk geure buruari ezartzen dizkiogun mugak egiazki larriagoak direla legeak berak ezarritakoak baino eta hori gertatzen dela, hain zuzen, gure hizkuntzarekiko leialtasun pragmatikorik erakusten ez dugulako. Laburki esanda, planteamentu honen arabera, euskara gehiago erabiltzen ez bada, gure errua dela, ez digu inork galerazten eta. Militantzia kontua, beraz.

Zalantzarik ez da, Soziolinguistikan asko azpimarratzen dena gainera, hizkuntza baten etorkizuna erabileran dagoela, hiztunen baitan alegia. Gu baikara hizkuntz zapalkuntza nozitzen dugunak, geuk saiatuko beharko dugu zulo horretatik ateratzen, horretarako legeak irekitzen dizkigun zirrikitu guztiez baliatuz. Zentzu honetan, ukaezina da diglosi egoera anormal honetatik ateratzeko, lehenik geure adimena normaldu behar dugula, dauzkagun traba psikologikoak, hizkuntzarekiko autogorrotoak alegia, gainditu behar ditugula.

Hau esatea, ordea, erraza bezain iruzurtia da, zeren arazoa ez baita euskara dakitenek ez dutela erabiltzen egiaztatzea; zailago dena da ulertaraztea zergatik ez duten egiten eta, adieraziz gero, azaltzea nolako bitartekoak erabili behar diren hizkuntz egoera desorekatu hau berdintzeko. Horretarako, jakina, ez da aski gure adimena normaltzea; beharrezkoa izango da, eta hau batez ere, gizarte-harremanak oro normaltzea. Hizkuntz erreformaren emaitzak arras mugatuak izango dira, borondaterik handiena jarrita ere, baldin aldi berean ez badira aldatzen gizarte-egiturak. Nik honi jokabide utopikoa deritzot, zeren hiztunen aldetik erabilera normalizatu ahal izateko, lehenik edo aldi berean norberarena baino zabalago den hizkuntz komunitatearen egoera anormala normalizatu behar baita. Batak bestea eskatzen du. Uholdearen kontra igeri egitea bezain zaila da inguruko giroaren aurka ihardutea. Bestalde, neurri batean fariseikoa ere bada, zeren herritar soilari hizkuntzarekiko leialtasuna eskatzen zaion bitartean, erakunde administratibo hainbatek -agian gehien- go batek?- euskara jakin ere ez baitaki eta, beraz, ezin erabili

ohizko harremanetan eta agerraldi ofizialetan, adibidez Parlamentuan. Legeak aldarrikatzen dituenak berak ez badu betetzen araututakoa, non geratzen da haren sinesgarritasuna? Zein ari da desakreditatzen euskararen gizarte-ohorea?

Bi: Botere politikoak, gure kasuan Estatuak, ez luke, besterik gabe, hizkuntz normalkuntza ekarriko. Uste hori ustela izateaz gainera, engainu bat izango litzateke. Eta argumentu bezala, behin eta berriz, Irlandaren kasua aipatu da. Gaelikera hiltzeaz omen dago, agur esateko puntuak: % 3k daukate gaelikodun zaharren maila, eta beste % 10k elkarrizketarik gehienetan parte hartzeko gaitasuna.

Galdetu behar dena da ea zergatik gertatu den hori han. Baleudeke arrazoiak. Ez da gogoratzen, esate baterako, Eireko Estatu sortu zenean, 1921ean alegia, % 7a besterik ez zela gaelikoduna. Beraz, hizkuntz normalkuntza aski berandu zetorren, beranduegi. Ez da esaten, ezta ere, Estatu nazionalak biziki epel jokatu zuela bere etni-hizkuntza indarberritu eta komunikabide normaltzat jartzeko. Ohargarria da, halaber, jakitea nola eiretarrek sortu zuten 1965ean eskubide pertsonalaren aldeko mugimendu bat, *Language Freedom Movement* izenekoa, praktikan ingelesa defendatzera zetorrena.

Alderantziz, Irlandakoa eredu desegokitzat hartu eta, zergatik ez dira aipatzen aurkako adibideak, hala nola: Israelgoa, Finlandiakoa, Txekoslovakiakoa eta?

Adibideak adibide, bestelakorik sinestea inozoa izango bailitzateke, beste hau ere esan nahi nuke: botere-aldaketak, Estatuaren eraikuntzak adibidez, ez duela berez ekarriko hizkuntzaren normalkuntz prozesuaren burutzea, baldin eta, aldi berean, hizkuntz komunitatearen barne-dinamika indartzen ez bada. Nik uste dut, maila honetan, herri desberdinetan indartzat kultur eta hizkuntz mintegi eta erakundeak serio aintzakotzat hartzekoak direla. Nolanahi ere, botere politikoaren esku dago hizkuntz normalkuntzarako bideak erraztea bezala zailteza. Botere horretaz nola eta zertarako baliatu, nik uste, horretan datza gakoa.

Hiru: euskaltzaleok gogo amankomuna izan behar dugu euskararen inguruan, hizkuntz alderdi gisako bat edo osatuz. Bide arriskutsua deritzot honi, lehen esan dudanez, hizkuntz mugimendua ezin delako inolaz ere apolitizatu, hitz honen zentzu hertsian. Hizkuntzarekin batera, proiektu nazional osoa dator, hor barruan beste gizarte-arazo guztiak daudela,

*«Botere-aldaketak,
Estatuaren
eraikuntzak adibidez,
ez du berez ekarriko
hizkuntzaren
normalkuntz
prozesuaren
burutzea, baldin eta,
aldi berean, hizkuntz
komunitatearen
barne-dinamika
indartzen ez bada»*

*«Bide arriskutsua
deritzot hizkuntz
alderdi gisako bat
edo osatzeari,
hizkuntz mugimendua
ezin delako inolaz ere
apolitizatu, hitz
honen zentzu
hertsian.
Hizkuntzarekin
batera, proiektu
nazional osoa dator,
hor barruan beste
gizarte-arazo guztiak
daudela, elkar-
kontraesanean eta
elkarri mugatuz»*

«Hizkuntzarekikoa norberaren esku uzten denean, non eta hizkuntz komunitate arras anormaldu batean, euskararen ordezkapen-prozesua areagotu besterik ez baita egiten, nahiz eta zenbait gizarte mailetan aurrera-pausorik eman dela egiaztatu»

elkar-kontraesanean eta elkarri mugatuz.

Lortu beharko litzatekeena da euskaltzaleok eta abertzaleok batera jokatzeko nazio-proiektu horri buruz. Eta hau esatean, noski, Euskadi eta Espainia/Frantziaren arteko antinomia azpimarratzen, alderdi estatuen eta nazionalisten arteko antitesian isladatzen dena. Nahi badugu eta ez badugu, aldeak alde, euskaltzelok eta abertzaleok, baldin eta euskal kausa eta, honen barruan euskararena, aurrera atera nahi badugu, batera jokatzera kondenatuak gaude, azpiraturik gauzkatzen bi Estatuak areago zapaldu besterik ez gaituzte egingo eta. Euskal gizartearen kontsensusa edo adostasuna hortxe kokatzen dut nik: etxekoen artean. Axioma hau sinestetik hasi beharko genuke, oinarritzko jarrera-aldaketa honetatik alegia. Eginkizun honetan, bistako arrazoiengatik, erantzukizunik larriena agintari politikoei dagokie. Inkestek diotenez, gainera, horixe da herrian gehiengo batek eskatzen duena.

Berreskurapenaren lehentasuna hirigune nagusietan

Arestian aipatu dudana nazio-proiektu amankomun horren helburu nagusia, lehena, hizkuntz berreskurapena izango litzateke eta helburu horri dagokion neurriko hizkuntz plan-gintza egitea, euskarak euskal lurralde osoan normalkuntza lor dezan.

Inoiz osoki euskaldunak izan ez diren edo jadanik aspaldi edo ez aspaldi galdua duten lurraldeetan ere bai? Baiki. Donostian bezala Bilbo eta Tuteran, edo Araban, edo Baionan. Zergatik ez? Euskaraz jakiteak ez lekarkiekie kalterik eta, aldiz, mesederik bai, batez ere hizkuntz komunitateari begira, zeren euskal lurraldea ez bada euskalduntzen, hizkuntz gatazkek eragindako prozesu diglosikoaren ondorioz, euskararen eremua irla bat suertatzeko arriskua egongo bailitzateke, zer esanik ez, jakinda gizarte-mugikortasuna eta, beraz, dinamika hiri nagusietan gauzatzen dela, gehienbat erdaldun direnetan. Lurgune edo nukleo geografiko garrantzitsu horiek hizkuntz normalkuntzatik kanpo geratuz gero, helburuak berak oinarrietan huts egingo luke.

Lurralde-erizpidearen ezarpena

Beste herrialdeetan gertatu diren esperientzietan ageri denez, bi erizpide erabili dira hizkuntz politikaren ardatz gisa: lurralde-eta pertsona-erizpidea.

Oso zaila da, ezinezkoa esango nuke, oraingo Konstituzio-esparrupean, lurralde-erizpidea ezartzea, esparru auto-

mikoari dagokiona, hain zuzen, pertsona-erizpidea baita. Hizkuntzarekikoa norberaren esku uzten denean, non eta hizkuntz komunitate arras anormaldu batean, euskararen ordezkapen-prozesua areagotu besterik ez baita egiten, nahiz eta zenbait gizarte-mailatan (komunikabide eta irakas-kun-tzan gehiago administrazioan baino) aurrera-pausorik eman dela egiaztatu.

Errebindikazio eta estrategia gisa, ordea, hizkuntz komunitateak dauzkan eskubide kolektiboetan oinarrituta, lurralde-erizpidea ezartzea izango litzateke biderik eraginkorrena, lurralde osoan zehar, belaunaldi heldua ezin bada, gaztea bederen euskaldundu ahal izateko lurralde deseuskaldunetan. Ez dago berez hizkuntz politika hori gauzatu ezinik, boterea gure esku egonez gero, zeren, datuen arabera, euskal gehiengo batek, erdaldunak ere bai, euskara ikasteari ongi baiteritzo. Hala izanez gero, ez legoke inposatu beharrik ere, zeren lurralde-erizpideak dakarren beharrezkotasuna gehiengoaren borondatearekin bat etorriko bailitzateke eta, horrela, hizkuntz normalkuntza era baketsuan gauzatuko, traumarik gabe. Horretarako, eta hemen dago azken gakoa, borondate politikoa behar da: batetik, proiektu nazionala gauzatuz joateko eta, bidenabar, hizkuntz plangintza arrazoizko eta eraginkor baten oinarriak ezartzeko.

Honez gero, badakizuke, irakurle, zergatik eta zertarako naizen euskaldun: deserriraturik segitzen duen euskara herriratzeko eta behingoz gure hizkuntz komunitatea euskaldunez osatzeko. Eta, halaber, zein den bidea: Euskal Estatua.

Paulo Iztueta Armendariz
EHUko irakaslea

*«Hizkuntz
normalkuntza era
baketsuan
gauzatzeko,
traumarik gabe
borondate politikoa
behar da: batetik,
proiektu nazionala
gauzatuz joateko eta,
bidenabar, hizkuntz
plangintza
arrazoizko eta
eraginkor baten
oinarriak ezartzeko»*